

MEATZALDEKO BEHARGINTZA, S.L.K “TRAPAGA LAN 2022–TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA”-REN BARRUAN ZENBAIT LANPOSTU ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO HAUTAPEN PROZESUAREN OINARRI OROKORRAK– “

Meatzaldeko Behargintza, S.L.ko Kontseilari Delegatuaren Aginduaren bidez onartu da zenbait lanpostu kontratatzeoko hautapen-prozesua hastea, Lanbide-Euskal Enplegu Publikoaren aurrean aurkeztutako eskaintza generikoen bidez. Hori guztia *Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zuzendari Orokorraren 2022ko maiatzaren 13ko EBAZPENAREN arabera, zeinaren bidez argitaratzen baita 2022 ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzentzako laguntzen deialdia (EHAA 2022/05/20koa)*. Gorago aipatu denagatik, eta aipatu lanpostuak betetzeko hautapena burutu ahal izateko, honako oinarri hauek erredaktatu dira:

MEATZALDEKO BEHARGINTZA, S.L.K, “TRAPAGA LAN 2022-TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA”-REN BARRUAN ZENBAIT LANPOSTU ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO HAUTAPEN PROZESURAKO OINARRI OROKORRAK.

LEHENENGOA: Deialdiaren xedea.

Oinarri hauen xedea da enplegu programa hauetan eskainitako 15 lanpostuetakoren bat eskuratzeko hautapen prozesua arautzea:

Goian aipatutako programetan eskaintzen diren lanpostuak TRAPAGA LAN 2022-TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA”-ren barruan daude, eta bere helburua da zenbait kontratazio egitea, toki eremuan, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegarritasuna areagotzeko, beren kualifikazioa edota gaitasun pertsonalak eta motibazioa handituko dituen aldi baterako lan-esperientzia baten bidez.

Okupabilitatea eta laneratze aukerak hobetzeko kontratuen bidez egingo dira kontratazioak.

BIGARRENA: Lanpostuen profila.

1).- Eskainitako plazen kopurua, izena eta kontratu mota:

- **MANTENIMENDU OROKORREKO JARDUEREI DAGOZKIEN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA:**
 - Lehen mailako ofizial lanpostu bat (1). Kontratuaren iraupena: 6 hilabete lanaldi partzalean (lanaldi osoaren %75ean). Lan edo zerbitzu jakineko aldi baterako kontratua.
 - Taldeburu lanpostu bat (1). Kontratuaren iraupena: 6 hilabete lanaldi partzalean (lanaldi osoaren %75ean).
 - Lehen mailako bi (2) ofizial lanpostu. Kontratuaren iraupena: 6 hilabete lanaldi partzalean (lanaldi osoaren %75ean). Lan edo zerbitzu jakineko aldi baterako kontratua.
 - Zortzi (8) peoi espezialista lanpostu. Kontratuaren iraupena: 6 hilabete lanaldi partzalean (lanaldi osoaren %75ean). Lan edo zerbitzu jakineko aldi baterako kontratua.

- **TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA: GAZTERIARENGAN ESKUHARTZEKO PROGRAMA.**
 - Gazteriarengan eskuhartzeko teknikari ertain lanpostu bat (1): 6 hilabete lanaldi partzalean (lanaldi osoaren %50ean).

- **TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA: IZAPIDEAK EGITEKO LAGUNTZA ADMINISTRATIBOAREN PROGRAMA**
 - Gizarte Laguntzak izapidatzeko administrari ofizial lanpostu bat (1). 6 hilabete lanaldi partzalean (lanaldi osoaren %75ean).

- **TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA: SALTOKI ETA ENPRESEN ZENTSUA EGITEKO AGENTEEN PROGRAMA**
 - Zentsu agente lanetarako bi (2) administrari ofizial lanpostu. 6 hilabete lanaldi partzalean (lanaldi osoaren %75ean).

2).- Kontratuen xedea:

Kontratazioen xedea da “TRAPAGA LAN 2022-TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA”-ren barruan dauden lanak betetzea. Programa hori Lanbidek-Euskal Enplegu Zerbitzuak subentzionatua dago, *Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zuzendari Orokorraren 2022ko maiatzaren 13ko EBAZPENAREN arabera, zeinaren bidez argitaratzen baita 2022 ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzentzako laguntzen deialdia (EHAA, 2022/05/20koa).*

3).- Urteko ordainsaria:

Aplika daitezkeen hitzarmenetan eta lan-arautegietan ezarritakoaren arabera izango da.

4).- Eginkizunak:

Beren kategoriaren arabera legez dagozkien edo esleitu dakizkiekeen eginkizunez gain, eta betiere Meatzaldeko Behargintza S.L.ko teknikariek gainbegiratuta, langileak bete beharko lituzketen eginkizunak hauek dira:

MANTENIMENDU OROKORREKO JARDUEREI DAGOZKIEN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMAN:

Peoi espezialista lanpostuei dagokienean:

- Erabileraren edo erabilera ezaren eraginez narriatzen diren basabideak eta jendearentzat interesgarriak izan litezkeen gunek (Zugaztieta) irekitzea eta egokitzea.
- Udal bideak mantentzeko lanak, bide-ertzak eta ubideak barne.
- Baimenik gabeko zabortegeiak eta orube publikoak garbitzea.
- Fuentecilla, Barcillao, Granada, Ballonti eta Galindo ibaien erretanak eta ertzak egokitzea eta garbitzea.
- Mantenimendu eta margotze lanak egitea zenbait elementutan (jardinerak, mutiloiak, eskudelak, zenbait udal eraikinen fatxadak eta barnealdeak, etab.)
- Eserlekuen mantenimendu lanak (listoiak lixatzea eta bernizatzea)
- Grafitiak, pintadak, zein itsatsitako paperak eta pegatinak kentzea hormetatik, trafiko seinaleetatik eta hiri-altzarrietatik.
- Hondakin solidoen bilketarako lurpeko edukiontzien mantenimendua, haiek urtxorroz garbitzea eta lixatzea barne.
- Isurbideak, kaleko estoldak eta saretoak garbitzea eta euri-uren eta hondar-uren kanalizazioetako kalteak konpontzea.
- Lauza eta zoladuretako konponketa txikiak.
- Ekipamendu publikoetako elementuak zaharberritu eta konpontzeko lanak.
- Sakanean eta Galindon narrioturiko gunetan ingurumenarekin lotutako eskuhartzea burutzea, gune publikoetarako egokituz eta hobetuz.
- Bere mailari dagokion beste edozein lan-mota, inguruabar bereziengatik haiek esku hartzea beharrezkoa balitz.

Lehen mailako ofizial lanpostuari dagokiona

- Izendatutako peoi espezialisten taldearen lana zuzendu eta gainbegiratuko du, betiere taldeburuak ezarritako jarraibideei jarraituz.
- Markatutako mantentze-lanak egiteaz arduratuko da.
- Beharrezko materialen eta baliabideen inbentarioa eguneratuta izaten lagunduko du.
- Erabilitako erreminta eta makineria egoera onean erabiltzen eta itzultzen dela gainbegiratuko du.
- Udal Obren Brigadarekin elkarlanean arituko da mantentze-lan espezifikoetan.
- Mantentze-lanetan erabilitako inputak erosteko eskaerak egitea.
- Programari esleitutako pertsonak, materialak eta tresnak garraiatzeko ibilgailua gidatuko du, eta horren ardura hartuko du.
- Aurrekoetz gain, mantentze-programako peoi espezialisten berezko zereginak egingo ditu.

Taldeburu lanposturako:

- Mantentze Lantaldeari esleitutako lanak egiteko denborak eta faseak planifikatu eta finkatuko ditu, eta aurrerapenen jarraipena egingo du, ezarritako kronogramaren arabera egin diren zehazteko.
- Mantenimendu Brigadako lantaldeek esleitutako lanak egiteko beharrezkoak diren materialak, makinak eta erremintak dituztela ikuskatuko du.
- Lanak emandako eskakizunen eta jarraibideen arabera egiten direla bermatuko du.
- Mantentze-lanetako brigadako kide guztiakin bilduko da (1. mailako ofizialak eta peoi espezialistak), lan bakoitza nola egin den ebaluatzeko eta, hala badagokio, lan osagarriak edo zuzenketak egiteko jarraibideak emateko.
- Programa amaitutakoan, garatutako jardueraren amaierako memoria egingo du.
- Gainbegiratuko du bere ardurapeko 1. mailako peoi espezialistek eta ofizialek jantzen dituztela hornitutako laneko arropa eta esleitutako norbera babesteko ekipamenduak, eta errespetatzen eta betetzen dituztela obra edo lantoki bakoitzean hartu beharreko segurtasun-neurriak.
- Zorrotz kontrolatuko du bere ardurapeko langile guztiak lanera joaten direla, eta Mantentze Lantaldeko kideengan ikusten dituzten hutsegite, atzerapen, ez-betetze, produktibitate eta abarren berri emango die Meatzaldeko Behargintzako arduradunei aldian-aldian, neurri egokiak hartzeko.
- Programari esleitutako pertsonak, materialak eta tresnak garraiatzeko ibilgailua gidatuko du, eta horren ardura hartuko du.
- Aurrekoetz gain, mantentze-programako 1. mailako ofizialen berezko zereginak egingo ditu.

GAZTERIARENGAN ESKUHARTZEKO PROGRAMA:

Gazteriarengan eskuhartzeko teknikari ertainaren lanposturako:

- Haur eta gazteak udal liburutegira erakartzeko ekintzak abiaraztea. Adibidez, (1) bazkide gazte berrientzako pizgarri-programa bat, ongietorri kit bat ematean datzana. Kit horretan liburutegia erabiltzeko eskuliburu txiki bat, orri-marka pare bat, arkatz edo boligrafo bat, liburu pare bat eta abar egongo dira, eta hori guztia paperezko edo oihalezko poltsa batean sartuta egongo da, udal liburutegiaren izenarekin, eta abar. (2) Sari-programa bat, liburutegiak antolatutako jardueretan parte hartzeagatik eta erabiltzeagatik, hala nola liburu-mailegu bakoitzeko opari-liburu bat, eta abar. (3) Bonu programa bat, liburuak eta material didaktikoa tokiko saltokietan erosteko, liburuak liburutegian irakurtzeko eta abar.
- Gazteen artean irakurketa eta liburutegiaren erabilera sustatzeko ekintzak gauzatzea (sustapen-ekintzak sare sozialetan, ikastetxeetan, Gaztegunean, KZ Gunean eta gazteen aisialdirako guneetan).
- Udal liburutegian idazle gazteen eskutik literatur argitalpenen aurkezpenak antolatzea, bertaratutakoek aurkezpena entzun, egileak ezagutu, liburuak erosi eta sinatutako eskaintzekin eraman ahal izateko.
- Haur eta gazteek liburutegiko txartela eta haren erabilerak hobeto ezagutzeko ekintzak egitea.
- Aldian-aldian irakurtzeko gomendioak egitea.

- Liburutegiak haur eta gazteei eskaintzen dizkien zerbitzu eta baliabideei buruzko aldizkako informazio eguneratua ematea.
- Haur eta gazteek liburutegiko baliabideen erabilerari buruzko txostenak, estatistikak eta memoriak egitea.

IZAPIDEAK EGITEKO LAGUNTZA ADMINISTRATIBOAREN PROGRAMA:

Gizarte Laguntzak izapidatzeko administrari/ 1. mailako ofizial lanpostua:

- Etxebizitza alokatzeko laguntzen administrazio-izapideak egitea gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei.
- Gizarte-larrialdietarako laguntzen administrazio-izapideak egitea gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileei.
- Ohiko etxebizitzaren oinarrizko premiak eta erabilerak (argia, ura, etab.) eragindako gastuak estaltzeko laguntzen izapide administratiboak egitea gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei.
- Gizarte-prestazioak eta elikagai-laguntzak lortzeko laguntzen administrazio-izapideak egitea gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren prestazioen administrazio-izapideak egitea gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei.
- Kotizazio gabeko pentsioen eta erretiro-pentsioen administrazio-izapideak egitea gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei.
- Gutxieneko bizi-diru-sarreraren administrazio-izapideak egitea gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei.
- Aurrekoez bestelako gizarte-laguntzak eskuratzeko administrazio-izapideak egitea Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei.

SALTOKI ETA ENPRESEN ZENTSUA EGITKEO EAGENTEEN PROGRAMAN

Saltoki eta Enpresen zentsua egiteko agente lanpostuetarako:

- Udalerriko denda eta enpresen errolda eguneratzea.
- Bisitak egitea poligono eta industrialde guztietara, hirigunera eta inguruko auzoetara, martxan dauden merkataritza eta zerbitzuetako enpresa eta establezimenduen datuak biltzeko.
- Jarduerarik gabeko pabiloi, partzela eta lonjak aurkitzea, salgai edo alokairuan, eta, era berean, higiezin eta partzela horiek jasoko dituen zerrenda eguneratu bat eta industria- eta merkataritza-lurzoruaren mapa bat egitea.
- Meatzaldeko Gida Industrial eta Komertziala eguneratzea Valle de Trápaga-Trapagarani dagokion zatian.
- Enpresen eta saltokien kokapen-planoak egitea.
- Albisteak eta informazio interesgarria zabaltzea saltokien eta enpresen artean, etab.
- Aurreko zereginetatik eratorritako administrazio-lan guztiak egitea.
- Txostenak eta estatistikak egitea.
- Enpresa eta establezimendu komertzialekin komunikatzeko bideak ezartzea.
- Udalerriko langabeentzako, besteren konturako langileentzako, langile autonomoentzako, profesionalentzako, banakako enpresaburuentzako, ETEentzako

eta abarrentzako administrazio-izapideak egitea, tokiko, probintziako, autonomia-erkidegoko edo estatuko laguntzak lortzeko.

- Aurreko kolektiboek jasotako dirulaguntzen edo prestazioen jarraipena egitea.
- Hainbat talderen artean (merkatariak, ETEak, etab.) ager daitezkeen laguntza-programa berriei buruzko informazioa zabaltzea (itzuli beharrik gabeko laguntzak, jarduera aldi baterako eteteagatik prestazioak, finantzaketa-lerroak, abal-lerroak, kontrataziorako eta enpleguari eusteko laguntzak, etab.).
- Aurreko jarduerekin zerikusia duten era guztietako txostenak, estatistikak eta memoriak egitea.

HIRUGARRENA: Hautagaien eskakizunak:

- Eskakizun orokorrak:

Hautagaiek eskakizun hauek eduki beharko dituzte:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea, 7/2007 Legearen 57. artikuluan Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrei eta Espainian legezko bizilekua duten gainerako atzerritarrei buruz ezarritakoa beteko bada ere. Kasu horretan hautagaiek gaztelania mintzatua eta idatzia menderatzen dutela egiten dutela, Estatuko hizkuntza ofiziala den aldetik.
- b) Lanak egiteko gaitasun funtzionala edukitzea.
- c) 16 urtetik gorakoa izatea eta derrigorrezko erretirorako gehienezko adina ez izatea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean.
- d) Edozein Administrazio Publikotik banandua ez izatea, eta ez egotea desgaitua administrazioko lanpostuak betetzeko, 7/2007 Legearen 56 d) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- e) Eskaintako plazetarako eskatzen den titulazioa edukitzea. Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, haien homologazioa egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.
- f) 2012ko azaroaren 1a baino lehenago Valle de Trápaga-Trapagaran udalerrian erroldatuta egotearen egiaztapena.
- g) Meatzaldeko Behargintza SLk kontratatua ez izatea Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzetarako Laguntzen deialdian, bereziki egoera ahulean dauden eskualde eta udalerrii zuzendutako, 2021eko ekitaldiko enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako, ezta toki-erakundeek 2014-2020 aldirako Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan gazteak kontratatze laguntzen deialdian kontratatua ere, beste hautagairik egon ezean izan ezik, egoera hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatu eta jakinaraziko dutelarik.
- g) Langabezian egotea eta lan eskatzaile gisa inskribatuta egotea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan.
- h) Familia-unitate bakoitzeko pertsona batek baino gehiagok ezin izango du tokiko enplegua sustatzeko programan parte hartu eta lan egin, salbu eta beste enplegu-eskatzailek ez badago eta betetzeko postuak geratzen badira.

- Berariazko eskakizun gehigarriak zenbait lanposturentzat:
 - “Mantentze Orokorreko Jardueren Programa” delakoaren Taldeburuaren lanposturako, izangaiek gutxienez 24 hilabeteko lan-esperientzia izan beharko dute lanpostuaren kategoriarekin lotutako lanetan.
 - “Mantenimendu Orokorreko Jardueren Programa” delakoaren 1. mailako ofizial lanpostuetarako, hautagaiek 12 hilabeteko esperientzia izan beharko dute gutxienez lanpostuaren kategoriarekin lotutako lanetan.
 - Gazteriarengan Esku Hartzeko Tokiko Enplegua Sustatzeko Programarako Gazteriarengan Esku Hartzeko Erdi Mailako Teknikariaren lanposturako, euskararen B2 maila edo handiagoa egiaztatzen duen titulua izateaz gain, izangaiek honako titulazio hauetakoren bat izan beharko dute:
 - Gizarte eta Lege Zientzien Arloko Diplomatura, Lizentzia edo Graduoko unibertsitate-titulazioa, Hezkuntza Azpiarloan:
 - Gradua Haur Hezkuntzan/Gradua Maisu-maistran/Gradua Haur Hezkuntzako Irakasletzan.
 - Gradua Lehen Hezkuntzan/Gradua Maisu-maistran/Gradua Lehen Hezkuntzan.
 - Gradua Gizarte Hezkuntzan.
 - Pedagogiako Gradua.
 - Lanbide-heziketako titulazioa, GMHZkoa edo LH2koa, Gizarte eta Kultura Zerbitzuen eta Komunitatearen lanbide-arloan:
 - Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikaria.
 - Animazio soziokultural eta turistikoko goi-mailako teknikaria.
 - “Saltoki eta Enpresetako Zentsu-agenteen Tokiko Enplegua Sustatzeko Programa”-ko Saltoki eta Enpresen Zentsu-agenteen 1. mailako Administrari Ofizialaren lanpostuetarako: Profesionaltasun Ziurtagiria (PK), Oinarrizko Lanbide Heziketako Zikloa (LH B), Erdi Mailako (MLHZ) edo Goi Mailako (LH LH I) Lanbide Heziketako Heziketa Zikloa (Administrazioa eta Kudeaketa, Merkataritza eta Marketina eta Informatika eta Komunikazioak lanbide-arloak) izatea.

LAUGARRENA: Plazak betetzea.

Deitutako lanpostu-kopurua baino hautagai gehiago ezin izango da proposatu hautatu gisa. Hala ere, deitutako lanpostuak beteko direla ziurtatzeko, hautagai hautatuak lanpostuari uko egingo balio kontratua indarrean jarri baino lehen edo ondoren, Hautapen-Batzordeak erreserbako hautagaien zerrenda osagarri bat proposatu dezake.

BOSGARRENA: Hautagaien aurre-hautaketa, aurkeztu beharreko agiriak eta elkarrizketa fasera igarotzeko gutxieneko puntuazioa.

Hautagaien aurre-hautaketa egingo da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari bidalita eskaintza generiko bat. Horretarako, Meatzaldeko Behargintza, S.L.k dagokion Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoan aurkeztuko du eskaintza generikoaren agiria gorago aipatutako eskakizun orokor eta berarizkoekin, eta gutxienez bost hautagai eskatuko ditu eskainitako plaza bakoitzeko.

Hautapen prozesua norgehiagoka egingo da, kontuan hartuta Lanbide-Euskal Enplegu Publikotik jasotako curriculum vitae kontuan hartuta eta bi fase izango ditu: lehiaketa-fasea eta elkarrizketa-fasea. Lanbide-Euskal Enplegu Publikoak bidalitako hautagaiei agiri edo informazio osagarria eskatu beharko balitzaie, horiek ere baloratu egingo liriteke.

SEIGARRENA: Hautapen sistema.

Hautapen sistemak 2 fase izango ditu: Lehiaketa fasea eta elkarrizketa fasea.

Lehiaketa Fasea:

Honakoak baloratuko dira: (1) langabezian egondako antzintasun-denbora, (2) lanpostuarekin lotutako prestakuntza okupazionala eta osagarria, (3) euskara jakite-maila (4) Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Gizarte Ongizate eta Berdintasun Sailaren arabera esku-hartze egoera berezian egotea beharrian edota etxegabetzeagatik, (5 eta 6) lanpostuarekin lotutako lan eskarmentua (Mantenimendu orokorreko jardura programako taldeburu eta 1. mailako ofizial lanpostuentzako baino ez), (7) ofimatikako ezagutzak erabiltzaile mailan (soilik << Enpresei Laguntzeko Administrazio Programa>> eta << Saltokietako eta Enpresetako Zentsu Agenteen Programa>> ko 1. mailako Administrari Ofizialaren plazetarako), (8) Aisialdiko Begirale titulua, Profesionaltasun Ziurtagiriaren titulua (SSCB0209) Haur eta Gazteen Hezkuntza Aisialdiko Jardueren Dinamizazioa edo Profesionaltasun Ziurtagiriaren titulua (SSCB0211) Haur eta Gazteen Hezkuntza Aisialdiko Jardueren Zuzendaritza eta Koordinazioa (<< Gazteriarengan Esku Hartzeko Programa>> -ko Gazteriarengan Esku Hartzeko Erdi Mailako Teknikari plazarako soilik) eta (9) azken 5 urteetan Udalaren enplegu-programetan parte hartu ez izana.

- (1) Langabezian egondako antzintasun-denbora: Gehienez 5 puntu.

Hautapen Batzordeak hautagaia langabezia egoeran inskribatuta dagoen denbora baloratuko du, erreferentziatzat hartuta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Inskripzio Aldien Txostena (zehatzago esanda “Lan egoera hasi den data” izeneko txosten horren atala), baremo hauen arabera:

Balorazioa:

- a) 6 hilabete baino gutxiagoko langabezia-antzintasuna: 0 puntu.
- b) 6 hilabete baino gehiago eta 12 hilabete baino gutxiagoko langabezia-antzintasuna: 1 puntu.
- c) 12 hilabete edo gehiago eta 18 hilabete baino gutxiagoko langabezia-antzintasuna: 2 puntu.

- d) 18 hilabete edo gehiago eta 24 hilabete baino gutxiagoko langabezia-antzinatasuna: 3 puntu.
- e) 24 hilabete edo gehiago eta 30 hilabete baino gutxiagoko langabezia-antzinatasuna: 4 puntu.
- f) 30 hilabete edo gehiago eta 36 hilabete baino gutxiagoko langabezia-antzinatasuna: 5 puntu.

- (2) Lanpostuarekin lotutako prestakuntza okupazionala eta osagarria: Gehienez 6 puntu.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzutik jasotako CV-n agertzen den prestakuntza okupazionala eta osagarria, beteko den lanpostuaren eginkizunekin lotua, baloratuko du Hautaketa-Batzordeak eta ahalmena izango du erabakitzeko zein prestakuntza dagoen lotuta lanpostuarekin. Kontuan hartzen diren ikasturteen ordu guztiak batuz egingo da balorazioa, taula honi jarraiki:

Balorazioa:

Egindako orduak:	20 ordu	50 ordu	100 ordu	200 ordu	300 ordu	400 ordu edo gehiago
Puntuak	1 puntu	2 puntu	3 puntu	4 puntu	5 puntu	6 puntu

- (3) Euskara jakite-maila: Gehienez 2 puntu.

Lanbidetik bidalitako CVn jasota baldin badago baino ez du baloratuko Balorazio Batzordeak euskara jakitea, eta betiere hautagaiak daukan mailaren egiaztapen ofiziala denean agertzen dena, *azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailarekin parekatzekoan, ezarritakoaren arabera.*

Balorazioa:

- a) B1 maila: 0,5 puntu.
- b) B2 maila: 1 puntu.
- c) C1 maila: 1,5 puntu.
- d) C2 maila: 2 puntu.

Gazteriarengan Esku Hartzeko erdi-mailako teknikariaren lanposturako, Euskararen B2 titulua izatea ezinbestekoa denez, Balorazio Batzordeak euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiri hauek bakarrik hartuko ditu kontuan:

Balorazioa:

- a) C1 maila: 1,5 puntu.
- b) C2 maila: 2 puntu.

- 4) Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Gizarte Ongizate eta Berdintasun Sailaren arabera esku-hartze egoera berezian egotea beharrizan edota etxegabetzeagatik: Gehienez 6 puntu.

Balorazio Batzordeak hautagaia esku-hartze egoera berezian egotea baloratuko du, Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Gizarte Ongizate eta Berdintasun Saitetik jasotako txosten ofizialaren bidez, non egiaztatuko den hautagaia beharrizan edota etxegabetzeagatik egoera berezian dagoela eta horrek Gizarte Zerbitzuei esku-hartzera behartzen dituela. Esku-hartze egoera bereziko txosten hori agiri pribatua da, Balorazio Batzordea eta Gizarte Ongizate eta Berdintasun Sailaren artekoa, eta udal gizarte zerbitzuek baino ez dute ematen beharrizan edota etxegabetze egoeretan oinarritutako esku-hartzeren bat jasotzen ari diren hautagai jakin batzuentzat. Txosten hori ez badago, atal horretan “zero” puntuko balorazioa emango da. Txostenaren arabera balorazioa hauxe izango da:

Balorazioa:

- a) Beharrizan egoeragatik esku-hartzeko txosten berezia: 3 puntu.
- b) Etxegabetzeagatik esku-hartzeko txosten berezia: 6 puntu.

- (5) Mantentze Orokorreko Jardueren Programa>> delakoaren Taldeburu lanpostuarekin lotutako lan-esperientzia, lanpostu hori lortu nahi duten hautagaien zat bakarrik. Gehienez 12 puntu:

Hautaketa Batzordeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak jasotako CVn agertzen den lanpostuaren eginkizunekin lotutako lan-esperientzia baloratuko du, eta Hautaketa Batzordeak izangaiak egiaztatzen duen esperientzia-hilabeteak zehazteko ahalmena izango du. Balorazioa taula honen arabera egingo da:

- a) 24 hilabetetik beherako lan eskarmentua eraikuntza sektorearekin lotutako lanetan: 4 puntu.
- b) 24 hilabete edo gehiago eta 36 hilabete baino gutxiagoko lan eskarmentua eraikuntza sektorearekin lotutako lanetan: 8 puntu.
- c) 48 hilabete edo gehiagoko lan eskarmentua eraikuntza sektorearekin lotutako lanetan: 12 puntu.

- 6) Mantenimendu Orokorreko Jardueren Programa delakoaren 1. mailako ofizialaren lanpostuarekin lotutako lan-esperientzia, plaza horiek lortu nahi dituzten hautagaien zat bakarrik. Gehienez 12 puntu:

- a) 24 hilabetetik beherako lan eskarmentua eraikuntza sektorearekin lotutako lanetan: 4 puntu.
- b) 24 hilabete edo gehiago eta 36 hilabete baino gutxiagoko lan eskarmentua eraikuntza sektorearekin lotutako lanetan: 8 puntu.
- c) 48 hilabete edo gehiagoko lan eskarmentua eraikuntza sektorearekin lotutako lanetan: 12 puntu.

- (7) Enpresei Laguntzeko Administrazio Programa eta Saltokietako eta Enpresetako Zentsu Agenteen Programako 1. mailako administrari ofizialen lanpostuetarako bakarrik baloratuko dira ofimatika (Microsoft Office erabiltzea: Word, Excel, Power Point), posta elektronikoa, Interneteko nabigazioa eta abar.

Balorazioa egiteko, kontuan hartzen diren ikastaroetako ordu guztiak batuko dira taula honen arabera:

Balorazioa:

Egindako orduak:	20 ordu	50 ordu	100 ordu	200 ordu	300 ordu	400 ordu edo gehiago
Puntuak	1 puntu	2 puntu	3 puntu	4 puntu	5 puntu	6 puntu

- (8) Gazteriarengan Esku Hartzeko Programako Gazteriarengan Esku Hartzeko Erdi Mailako Teknikariaren lanposturako bakarrik baloratuko dira: Aisialdiko Begirale titulua edo Profesionaltasun Ziurtagiria (SSCB0209), Haur eta Gazteen Hezkuntza Aisialdiko Jardueren Dinamizazioa edo Profesionaltasun Ziurtagiriaren titulua (SSCB0211), Haur eta Gazteen Hezkuntza Aisialdiko Jardueren Zuzendaritza eta Koordinazioa.

Balorazioa: 2 puntu titulazioen bat izanez gero.

(9) Azken 5 urteetan udal-mailako enplegu-programetan parte hartu ez duten pertsonen 3 puntu gehiago emango zaizkie.

Elkarrizketa fasea:

Hautapen Batzordeak elkarrizketa pertsonala egingo die horretarako gutxienez eskatu den puntuazioa lortu duten hautagaiei (4 edo 6 puntu kasuen arabera), Nolanahi ere, Hautaketa Batzordeak, azkenean, puntuazio txikiagoa edo handiagoa eman ahal izango du, jasotako hautagai-kopuruaren arabera. Hori guztia, hautaketa-prozesuan hautagai-kopuru egokia, ez handiegia ez baxuegia, izango dela bermatzeko.

- Elkarrizketa-fasera igarotzeko, gutxienez 4 puntu lortu izana eskatuko da honako lanpostu hauetarako: Taldeburua, 1. mailako ofiziala, Gizarte Laguntzen 1. mailako Administrari Ofiziala, Zentsuko 1. mailako Administrari Ofiziala eta Gazteariarengan Esku Hartzeko Erdi Mailako Teknikaria.
- Elkarrizketa-fasera pasatzeko, gutxienez 6 puntu lortu izana eskatuko da, peoi espezialista lanposturako.

Elkarrizketa-fasean, izangaiari egindako curriculum-elkarrizketa pertsonala baloratuko da, honako puntuazio-baremo honen arabera:

- (10) Hautagaiari egindako curriculumeko elkarrizketa pertsonala. Gehienez, 10 puntu.

Elkarrizketa horren helburua da jakitea ea hautagaia egokia den eskaintzen den lanposturako eta defendatu egin beharko du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bidalitako curriculum, Hautapen Batzordeko kideek egindako galderei erantzunez. Elkarrizketaren bidez frogatu beharko du bere lan ibilbidean zehar hartutako eskumenak eta gaitasunak lanpostua betetzeko behar direnak direla. Elkarrizketa fasera aurkezteko aukera izanda, curriculum-elkarrizketara aurkezten ez direnek “EZ GAI” kalifikazioa jasoko dute behin betirako.

Valoración:

Hautapen Batzordeko kide bakoitzak emandako puntuazioen batezbesteko aritmetikoa egingo da puntuazioa zehazteko, gehienez 10 puntu lortu daitezkeelarik.

ZAZPIGARRENA: Argitalpena eta hautapen prozesuan zehar aplikatu beharreko epeak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan eskaintako lanpostu bakoitzaren eskaintza orokorrak 2022/10/18an argitaratuko dira, eta 2022/10/24an amaituko da eskaintzetan izena emateko epea. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hautagaien aurre-hautaketa bat egingo du eskaintzetan izena emandako pertsonen artean, eta, beharrezkoa izanez gero, barne-zundaketen eta -kasazioen bidez.

Eskaintzetan izena emateko epea amaituta, 2022/10/28an argitaratuko da aurrehautatutako hautagaien behin-behineko zerrenda Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hautaketa-prozesurako ezarritako argitalpen-bitarteko hauetan:

- Valle de Trápaga–Trapagarango Udaleko Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentziaren iragarki-oholean.
- Meatzaldeko Behargintza, S.L.ren webgunean: <http://www.behargintza-zm.com>

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aurrez hautatutako pertsonen zerrenda honetan agertzen ez diren pertsonak 2022/10/31ra arteko epea izango dute erreklamazio bat aurkezteko. Erreklamazio-epea amaituta, 2022/11/02an argitaratuko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aurrez hautatutako hautagaien behin betiko zerrenda.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aurrez hautatutako hautagaiek, Trapagarango Udaleko Enplegu eta Tokiko Garapen Agentziaren egoitzan (Nafarroa kalea, 19, jendeari arreta emateko ordutegia: 09: 00etatik 13: 00etara) aurkeztu beharko dute Meatzaldeko Behargintza SLn, balorazioa egiteko, Lanbidek aurrez hautatutako hautagaien zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 3 egun baliouduneko epean, 2022/11/07ko epemugarekin. Dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emateko aldien txosten eguneratua.

- Lan-bizitzari buruzko txosten eguneratua, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana.

2022/11/11n argitaratuko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Elkarrizketa Fasera igaro ahal izateko oinarrietan eskatzen den gutxieneko puntuazioa lortu duten hautagaien zerrenda.

Elkarrizketa fasera igarotzen diren aurre- hautatutako pertsonen zerrenda horretan agertzen ez direnek 2022/11/14ra arteko epea izango dute erreklamazioa aurkeztu ahal izateko. Erreklamazio-epea amaituta, 2022/11/15ean argitaratuko da elkarrizketa-fasera igaroko diren pertsonen behin betiko zerrenda, curriculum-elkarrizketa egiteko pertsona bakoitzari esleitutako data eta orduarekin batera.

Hautagaien zerrenda horiek kontsultatzeaz arduratu beharko dute, elkarrizketa-fasera igaro diren ala ez jakiteko. Zerrenda horiek hautaketa-prozesurako ezarritako argitalpen-baliabideetan argitaratuko dira, hain zuzen ere:

- Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentziako iragarki oholean.
- Meatzaldeko Behargintza, S.L.ren webgunean: <http://www.behargintza-zm.com>

Elkarrizketa-fasera igarotzeko hautaketa-prozesuaren oinarrietan ezarritakoaren arabera Hautaketa Batzordeak eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu duten hautagaien curriculumeko elkarrizketa pertsonala egingo dute, aukeratzen duten lanpostuaren arabera, honako data hauetan: 2022ko azaroaren 16, 17 eta 18an.

Hautaketa Batzordeak egindako hautaketaren behin-behineko eta behin betiko emaitzak argitaratuko ditu, eta une oro bermatuko die hautagaiei erreklamazioak aurkezteko gutxienez egun baliadun 1 izango dutela. Emaitzak argitaratzeko aurreikusitako datak, lanpostuaren arabera, honako hauek dira:

- Lanpostu guztien hautapeneko behin behineko emaitzak: 2022/11/23
- Lanpostu guztien hautapeneko behin betiko emaitzak: 2022/11/25

Lanpostu desberdinak betetzeko hautatutako pertsonen zerrendetan agertzen ez diren pertsonak erreserban daudela ulertuko da.

Hautagaiak arduratuko dira argitaratzen diren zerrendak prozesurako ezarritako argitalpenen bidez kontsultatzeaz, unean-unean argitaratutako emaitzetan aldaketarik gerta badaiteke ere, hautagaien batek erreklamazioa aurkeztearen ondorioz.

ZORTZIGARRENA: Hautapen Batzordearen proposamena.

Behin betiko kalifikazioa: Hautapen batzordeak behin behineko ebazpen-proposamena egingo du, zioak azalduz, eta honakoetan argitaratuko da:

- Valle de Trápaga–Trapagarango Udaleko Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentziako iragarki oholean.
- Meatzaldeko Behargintza, S.L.ren webgunean: <http://www.behargintza-zm.com>

Proposamen horretan hautatu diren hautagaien zerrenda ordenatuak jasoko dira. Hautapen Batzordeak hautagaien behin betiko kalifikazioaren arabera egingo du bere proposamena, kalifikazio hori Lehiaketa Fasean eta Elkarrizketa Fasean lortutako puntuazioen baturatik aterako delarik. Puntuazio handienetik txikienera eta dagokien kolektiboaren arabera ordenatuko dira hautagaiak. Hautagaien arteko puntu-berdinketa gertatuz gero, lehentasun hurrenkera hau aplikatuko da:

- Adinez zaharrena den pertsona.
- Langabezian antzinasun handiena duen pertsona (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko inskripzio-aldien txostenean agertzen den dataren arabera).

Betiere kontratua hasi baino lehen egiaztatuko da hautatutako hautagaia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuta dagoela, 2021/11/01 baino lehenagotik dagoela erroldatuta Valle de Trápaga-Trapagaranen eta ez dela kontratatua izan 2021eko ekitaldiko Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen deialdian eta 2021eko ekitaldirako 2014-2020 Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan toki-erakundeek gazteak kontratatzekeo laguntzetarako deialdietan ez dela kontratatua izan, eta baldintza horietakoren bat ez badu betetzen ezin izango da kontratatu, punturik gehien lortu duen hautagaia izan bada ere.

Lanpostu guztietarako kontratuak hasteko aurreikusten den data 2022/12/12koa da, baina gutxi gorabehera data hori aldatu ahal izango da kontratuak egiten dituen erakundeok arduradunak (Meatzaldeko Behargintza, S.L.) hala uste badu.

BEDERATZIGARRENA: Hautapen Batzordea.

Meatzaldeko Behargintza, S.L.ko Kontseilari Delegatuaren aginduz erabakiko da Hautapen Batzordeko kideen kopurua eta izendapena, eta haien ordezkapena ere bai. Gutxienez erakundeok plantillako 2 pertsona egongo dira Batzordean, bat, behintzat emakumea izan beharko delarik, ezinezkoa ez bada. Hautapen Batzordeak kanpoko aholkulari espezialistak eduki ditzake.

Hautapen Batzordeko kide titularrak ezin badute etorri, esku emandako langileek ordezkatu ditzakete. Dena den, titularrek zein ordezkoek beteko den lanposturako eskatzen den titulazio berdina edo handiagoa eduki beharko dute, ahal den neurrian errespetatu egin beharko delarik profesionaltasun printzipioa eta gizon eta emakumeen arteko parekotasuna, betiere bermatuz hautapen prozesuan gutxienez emakume bat egongo dela.

Elkarrizketetan eta lanpostuetarako hautapenean tratu eta aukera berdintasun printzipioa aplikatuko dela eta gizon eta emakumeen artea ez dela diskriminaziorik egongo bermatzen da.

Hautapen-Batzordeak oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztiari buruz sor litezkeen zalantzak eta gorabeherak konpontzeko ahalmena izango du.

Jakinarazpenetarako eta gainerako inguruabarretarako, Hautapen-Batzordearen egoitza hauxe da: Meatzaldeko Behargintza, S.L., Bilboko etorbidea, 10 behea, Euskaldunberri plaza, Ortuella (P.K. 48530, Bizkaia).

HAMARGARRENA: Datu pertsonalen babesa.

Interesdunek emandako datuak hautagaien fitxategi automatizatu batean sartu ahal izango dira, Datuak Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 13ko 15/2018 Lege Organikoaren arabera. Fitxategi hori Meatzaldeko Behargintza, S.L.ren ardurapean geratuko da Ortuellako Bilboko etorbidea, 10 behean, Euskaldunberri plaza, (P.K. 48530, Bizkaia).

Eskuraturiko informazioa pertsonalaren kudeaketarako baino ez da prozesatuko. Datu pertsonalak abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak ezarritako babes mailarekin tratatuko dira. Datu pertsonalak dauzkaten fitxategi automatizatuen segurtasun neurriak ezartzen ditu lege horrek, eta informazioaren konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko segurtasun neurriak hartuko dira. Interesdunek datuok eskuratzeko, zuzentzeko, deusezteko eta aurkaratzeko eskubideak erabil ditzakete, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoak ezartzen duena betez, Meatzaldeko Behargintza, S.L.ren aurrean, Ortuellako Bilboko etorbidea, 10 behean, Euskaldunberri plaza, (P.K. 48530, Bizkaia).

HAMAIKAGARRENA: Hautatutakoek aurkeztu beharreko agiriak.

Hautatutakoek ondorengo agiriak aurkeztuko dituzte Meatzaldeko Behargintza, S.L.n deialdian eskatzen diren gaitasun-baldintzak eta eskakizun orokorrak eta berarizkoak betetzen dituztela egiaztzeko:

1. Profilean eskatutako baldintzak egiaztatzeko agiri original guztiak.
2. Lana normaltasunez burutzea eragotziko dion gaixotasun edo akats fisikorik ez daukala e. giatzen duen mediku-ziurtagiria.
3. Zinpeko aitortpena, indarrean dagoen legerian aipatzen diren ezgaitasun- edo bateraezintasun-arrazoi espezifikorik ez duela adierazteko.
4. NAN, pasaporte edo bizileku-txartela eta lan-baimena, beharrezkoa bada.

DÉCIMOSEGUNDA: Posibles variaciones de fechas y plazos.

Las fechas de publicación de ofertas en Lanbide-SVE, plazos de preinscripción a las ofertas, fechas para entrega de documentación obligatoria, fechas de publicación de listados de personas admitidas/excluidas al proceso selectivo, fechas de entrevistas, fechas de publicación de resultados provisionales/definitivos, plazos de presentación de alegaciones, etc., son orientativas, lo que significa que pueden variar respecto de las que figuran en las Bases en el momento de publicación de las mismas.

Todo lo anterior, debido a que pueden darse diversas circunstancias que obliguen a alterar sobre la marcha dichas fechas y plazos pre-establecidos, por diversas razones tales como: razones de funcionamiento de Lanbide-SVE, demoras en la recepción de candidaturas, número de candidaturas recibidas, necesidades de reorganización del proceso selectivo, disponibilidad de medios, etc.

Debido a lo anterior, las personas candidatas deberán responsabilizarse de consultar e informarse de las fechas y plazos vigentes en cada momento, a través de los medios de publicación establecidos para el proceso selectivo, concretamente:

- Valle de Trápaga–Trapagarango Udaleko Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentziako iragarki oholean.
- Meatzaldeko Behargintza, S.L.ren webgunean: <http://www.behargintza-zm.com>

HAMAHIRUGARRENA: Azken oinarria.

Hautapen prozesuan parte hartzeak oinarri hauek espreski onartzen direla suposatzen du. Hautapen Batzordeak oinarri hauetan aipatzen ez den edozein kontu arautzeko ahalmena izango du eta oinarri hauen edukia interpretatzeko ere bai.

Ortuellan, 2022ko urriaren 10ean.



Francisco Javier Cuéllar Cuadra
Meatzaldeko Behargintza, S.L.ko Kontseilari Delegatua